

INGURUMENA. Iragarpenak ezkorak dira; hurrengo egunetan itsasertza berriz ere beltz daitekeen kezka dago

Euskal arrantzaleek orain arteko erregai kopuru handiena bildu dute

Gipuzkoa eta Bizkaia parean 2.000 tona jaso ziren; ondorioz orban gutxiago heldu zen kostara

Erredakzioa | DONOSTIA-BAIONA

Euskal Herriko hondartzetan azken egunetan baino fuel-olio gutxiago agertu zen atzo. Bizkaian 84 tona jaso zituzten. Bakio izan zen hondartzarik kalte-tuena, nabarmen. Gipuzkoan, Donostiako Kontxa, Ondarreta eta Zurriolako hondartzak izan ziren kalte-tuena. Izan ere, Gipuzkoara heldutako 113,5 tonetatik 81 Donostian jaso zituzten. Lapurdin, berriz, hondartzarik kalte-tuena Donibane Lohizuneko hondartza, Bidarteko Uhabia eta Miarritzeko hondartza handia izan ziren. Hala ere petrolio ez zen azken egunetan bezain kantitate handitan heldu.

Kontuak kontu, arriskuak bere horretan dirau. Izan ere euskal itsasertz guztia fuel-olio orban bezala, arrantzaleek eguraldia lagun izan zuten, eta itsasora ateratzeko aukera izan zuten. Gipuzkoan eta Bizkaian itsasora atera ziren arrantzontziek 2.000 tona erregai jaso zituzten, orain arte bildutako kopururik handiena.

Arrantzaleek lan eskerga egin zuten

Eusko Jaurlaritzako eledun Josu Jon Imazek nabarmendu zuenez, «euskal itsasertza garbitzen ari diren arrantzontziek fuel-olio orban ugari itsasertze-ira iristea saihestu dute». Orotara 210 ontzi atera ziren atzo itsasora. Horietatik 180 —Gipuzkoatik eta Bizkaiatik atera-takoak— Eusko Jaurlaritzak koordinatu zituen.

Iparaldean Itsas Prefetak 30 itsasontzi gehiago errequisatu zituen asteazken iluntzean marea beltzaren aurkako garbiketa lanetan jarduteko. Itsasontzi horiek Donibane Lohizune, Baiona eta Capbretongo portueta-koak dira nagusiki. Orotara 150 arrantzale gehiago izanen dira.

Goizeko zortzietarako abiatu ziren atzo itsasontziak Donibane Lohizuneko portutik. Miarritze eta Hendaia artean zeuden petrolio xafiak biltzen aritu ziren. Eguraldi onaren eraginez, goizeko hamarretarako portura itzuli ziren lehen itsasontziak, barnean zeramatzen hondakin ontziak leporaino petrolioz beterik. Ontzi bakoitzak petrolio tona inguru bildu zuen Lapurdiko kostan.



ARRANTZALEEN LAN ESKERGA. Azken egunetan ez bezala, arrantzaleek atzo eguraldia lagun izan zuten eta itsasora atera ziren. Irudian, Lapurditik fuel-olioa jasotzera joan ziren bi arrantzale.

Orban beltzen bilakaera

Fuel-olio orbanak Orbanen norabidearen iragarpena Portugalgo ur-lastera Hesi flotagarriak

Fuel-olio orbanen mugimenduen iragarpenak
① GAUR ② BIHAR

CEDRE erakundeko teknikariek eginiko iragarpenek aldaketa dakarte. Kostara bidean agertzen ziren orain arte fuel-olio orbanak. Datozen egunetan kostatik urrundu egingo direla dirudi.




HONDARTZA KALTETUENAK

GIPUZKOAN ETA BIZKAIAN GUZTIRA

Hondakin gehien jaso zen hondartzak (tonatan)

Armitza	Bakio	Ibarrangelu	Zumaia	Zarautz	Donostia
6,5	49	16	8	10	81

197,5 tona hondakin



Harrapaketa eraginkorra izan bazen ere, arazoak lehorrean sortu ziren. Izan ere lehorrean ez zuten petrolio atxikitze-ko plastikozko poltsa gehiagorik prest eta arrantzaleek berriak ekarri arte beha egon behar izan zuten portuan bi oren luzez. Gainerako arazoaren artean, kaineraz egindako salabardak hauskorregiak direla adierazi

zuten arrantzaleek. Egunean zehar 40 tona fuel-olio bildu zituzten atzo itsasoan. Itsas Prefeturak azaldu zuenez, itsasoko garbiketa lanak bertze aste batez bederen luzatuko dira.

Iragarpen ezkorak egin dituzte

Atzo hondartzetara azken egunetan baino orban gutxiago heldu arren, iragarpenak oso ezko-

rrak dira. Imazek azpimarratu zuenez, «hurrengo lau edo bost egunetan itsasertzetik 30 milia baino gertuago dagoen erregai guztia garbitzen ez bada kostaldean amaituko du».

Kezkatuta daudela aitortu zuen Imazek. Hala, Eusko Jaurlaritzak egoerari aurre egiteko adostutako hirugarren maila indarrean jarri duela azpimarratu

TURISMOA LAPURDIN

Komunikazioan «izugarrikeria» dagoela salatu du turismo bulegoak

Hitzen adierazgarritasunak eta komunikazio irizpideek eztabaida franko eragin dute azken egunetan Lapurdiko kostaldean. Izan ere, Turismo Bulegoak *Prestige*-k eragindako marea beltzaren inguruan komunikazio mailan dagoen «izugarrikeria» gaitzetsi nahi izan du. Turismo Bulegoak zenbait gomendio eman dizkio bere kideei, horien artean *marea beltza*, *petrolio xafiak* eta *hondamendia* bezalako hitzak ekidin eta horien ordeztuz *Prestige*-k eragindako *kutsadura*, *pikorrak* eta *kalteak* kontzeptuak erabiltzeko aholkatu du. Bezeroei begira *penaturik gaude* edo *sentitzen dugu* adierazpenen ordeztuz *ulertzen dugu* zu arduraturik *egotea* bezalako erranaldiak erabiltzea aholkatzen du.

Nathalie Sauzeau Surfrayderreko kideak gogor gaitzetsi du Turismo Bulegoak abiatutako kanpaina. «Uler-tzen dugu ekonomia mailan interes handiak daudela jokoan, baina ezin zaie jendei iruzurra saldu», azaldu zuen. «Itsasotik tonaka hel-tzen ari da fuel-olioa, hondartza guztiak beltzurik daude marea guziz eta gauzei bere izenez deitu behar zaie: hau benetako hondamendia da eta ezin da aipamena eztitu».

Ipar Euskal Herriko Turismo Bulegoak bertzelde, ekonomian *Prestige*-ren ondorioak sentitzen hasi direla aitortu du. Itsas aktibitateak eta thalasoterapia bezalako eskaintzak egiten dituzten enpresek gero eta bezero gutiago dituztela diote, eta oporraldietarako erreserbak ere bertan behera gelditzen ari direla.

zuen. «Atzo 600 lagun inguru aritu ziren Gipuzkoako eta Bizkaiko hondartzak garbitzen, ohi baino 200 gehiago. Egoerak okerrera egingo balu laugarren maila ezarriko genuke. Hori ezartzea erabakiko bage-nu, boluntarioak hasiko lirateke hondartzak garbitzen».

Bestalde, *Prestige* petrolion-tziak eragindako marea beltza-ren aurkako borroka «luzea» izango dela gaineratu zuen bo-zeramaileak.